




GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

| | |
|-----------------|--|
| SARRERA-ENTRADA |  GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA |
| | 2006 OTS. 13 FEB. 13 |
| | ZK. / N.º 1264 |
| ESP. EXP. | 07/C/12/1248 |

MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, ARALAR Taldeko bozeramalea, Batzar Nagusietako araudiari jarraikiz, Ekoizpen Ekologikoko produktuak merkaturatzeari buruzko Ez Aaruzko proposamena aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin


ZIOA

Ingurumena zaintzeak, babesteak gero eta garrantzi handiagoa duen garai hauetan, ezinbestekoa da, ingurumenarekin, naturarekin errespetagarrienak diren jarduerak kontutan hartzea eta bultzatzea. Lurra gero eta eskasagoa dugun ondarea da. Lurren erabilera mugatua da edozein jarduerarako. Eta nekazaritza alorrean ere lurren kudeaketa motak garrantzia izugarria dauka, berauen ekoizpen gaitasuna ez murrizteko eta, mantentzeko. Lurrean egiten den kudeaketa motak ere eragin zuzena du bertatik ekoizten diren produktuen kalitatean, eta ondorioz produktu horiek kontsumitzen dituzten herritarren osasunean.

Ezin dugu ukatu, nekazaritza ekologikoa dela ekoizpen modu garbiena, osasuntsuena eta, ingurumenarekiko jasagarriena eta solidarioena.

Baina ekoizle hauek izugarrizko oztopoekin aurkitzen ari dira beraien produktuak merkaturatzeko garaian eta beraien egoera kezagarria da. Faktore desberdinak eragiten dute oztopoak sortzea: kontsumitzaileen informazio eza, merkatura iristeko zailtasunak, beste era batetako produktuekin lehiatzeko zailtasunak...

Hala ere, ekoizle horiek gogoz lanean dihardute bide desberdinak jorratuz, produktu ekologikoen berri gizarteari eman ahal izateko, lurra ahalik eta ondoen zaintzen eta errespetatzen, produktu ekologikoen merkaturatzea hedatzeko. Baina ahalegin horretan, Aralarrek ezinbestekotzat jotzen du erakundeek duten zeregina, erantzukizuna, naturarekin errespetuzkoena den nekazaritza babesteko, eta sustatzeko, beste kudeaketa sistema batzuk dituzten nekazaritza ereduarekin egiten duen antzera. Bai denon osasunaren mesederako, eta bai ingurumenaren babeserako eta mantentzerako.



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Misto (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

Osoko Bilkurarako Justifikazioa

Ikusirik Batzar Nagusien Jardueran Osoko Bilkurak direla oihartzun mediatiko handiena dutenak, gai hau oso egokia ikusten dugu bertan eztabaidatzea, horrela ez – arauzko proposamenean eskatzen dena praktikan ipiniaz, hots, nekazaritza ekologikoa gizartera ezagutzera emateko.

EZ ARAUZKO PROPOSAMENA

Gipuzkoako Batzar Nagusiek dei egiten diote Foru Aldundiari:

- 1.-Nekazaritza Ekologikoa, beste nekazaritza ereduen parekotasunean babesteko.
- 2.-Arloko ekoizle eta elkarrekin elkarlana bideratzeko, nekazaritza eredu horretan diharduten eragile desberdinek, dituzten oztopoak gainditzen laguntzeko, eta merkatua hedatzeko hartu beharreko neurriak adostu eta martxan ipintzeko.
- 3.-Ekoizpen Ekologikoko produktuak gizartean ezagutzera emateko informazio kanpainak egiteko.
- 4.-Ekoizpen Ekologikoko produktuak merkaturatzen laguntzeko diru laguntzak bidera ditzan.

Donostian, 2006ko otsailak 13

Rebeca Ubera Aranzeta
ARALAR BATZARKIDE TALDEA